


Gazteluene Bertso Eskola

ALTZAKO PAKON PARANOIAK

Agurra

Ongi etorri esanez
guztion izenen,
“Altzako Pako”n bertsoak
entzun behar hemen,
bertso-eskolatik gatoz
ez al da nabarmen,
polita izango dela
esan nahi genuen,
gure Gazteluenean,
abestuz ozen,
aspertu ez zaitezten,
helburua zein den,
ez dadila inor joan
bukatu baino lehen.



Txirrita (Joxe Erauskin-ek utzitako argazkia.
Altzako Tokiko Bilduma)

Jose Manuel Bizirik ???!

Aizak Gaztia hau al da Altza?
Ez al du ba lengo Altzaren antza,
Herri izaera Altzak galdu,
Rascazieloak baserria jan du,
eta Euskera?
Ze mouzkoa da bere egoera
hil zorian aurkitzen da bera.

lehen sagardoa ez zegon gutxi
orain egiteari dute utzi,
lehen denak joaten ginen bertara
gaur egun denak fabriketara,
gu goian tente,
goian sagardoa edan leike
kupel bat ustuz bestea bete.

Aizu Txirrita ze mouz zeruan?
Sagardo gabe al degun moduan,
bertsotako al dezute beta,
hiru urtetan behin txapelketa,
ta txapela nork?
Denok ibili ginduan gogor,
ni aurrena ta gero Xalbador.

Altzan ondo al da bertsolaritza?
Gazte batzuk lan horretan gabiltza,
eredua gainera zera zu,
gezurra dela esan zaidazu,
hau da egia,
hainbat egonda hartu neria,
eredu zeure alperkeria.

Aizak laguna ze mouz herrian?
ibiltzen gera al degun neurrian,
zelaiaren gainean porlana,
ta gazteok ez daukagu lana,
ta sagardoa?
Fresko freskoa da aurtengoa,
probatu be zerura ez noa.

Agur laguna zerurantz noa,
ta itzultzeko ba al dek asmoa,
na(g)usiak berriz ez dit utziko,
beraz agur laguna betiko,
lasai joan zaitetz,
Txirrita hil zitzaigun tamalez,
baina bere bertsoak oraindik ez.

Protagonistak: **Txirrita** Altzako Gaztea
Doinua: Juana Bixenta Olabe
Egilea: Unai Elizasu.

Gure Ametsak

Altzako Euskal astean gaude
behintzat aste bat gaztelerarik gabe,
hau da aste hontan helburu,
batzuentzat hainbat apuru,
aste hau urtea bihurtu nahi dugu.

Euskal herriko txoko guztiak,
euskaraz behar dute ondo bustiak,
ibili aterkirik gabe,
etxean ta kalean ere,
busti behar gera euskararen alde.

Lan honetan gogor egunero,
ez da gogorra euskaraz egin ezkerro,
euskara jarri behar dantzan,
ta aurrena herriko plazan,
gure kalejira hasiko da Altzan.

*Zeru txiki honek galdu du indarra,
dizdirarik ez du hor goiko izarra,
Euskal Altzatarrok guztiok batera,
dena lehen bait lehen
hil ez daitezen
Altza ta Euskera.*

*Euskara etxean ez utzi gordeta,
plazara atera behar baita eta,
nahiz ta ondo jakin ez dela erreza,
gaur da eguna
behar deguna
lortu gure ametsa.*

Doinua: ETBko zorionak abestia
Egilea: Unai Elizasu

Martxoak 8

Martxoak 8, berdintasuna
aldarrikatzeko une,
hire eskubide guztien alde
oihu egin behar dun, e ?
Gure oihartzuna izan ez dadin
ixil, pobre eta xume:
eguneroko bizitzan berdin
gizon eta emakume.

Tratu txar eta botere ezak
beztu du etorkizuna,
ametsak beti itxaropentsu
oraina berriz iluna.
Urte guztian egun bakar bat
errespetatzen gaituna,
martxoak 8 izango al da
eguneroko laguna?

Kateak hautsiz, egin ezazu
bidea askapenera,
gizonak utzi porrusaldako
tipularekin batera.
Dodoti, erratz ta erosketak
lan gehiegi ez ote da ?
guztia erraz ateratzen da
gogor saiatzen bazera.

Emekumeen etxekolana
beti izan da debalde,
labadoratik atera ditut
hamaika erropa balde,
gauza bat ongi jakin zazue
iada nazkatuta gaude,
gaurko borroka izan dadila
berdintasunaren alde.

Egileak: Itsaso Miranda eta Nora Estensoro
Doinua: 8ko nagusia

Altzako Sagardotegiak

Altzako erriyak leno bazitun
sagardotegiak nunnai,
kupel artian juntatzen ziran
orduko arreba ta anai;
"txurrut" garaya eltzen zanian
begiyak zituzten ernai,
Astigarrako kontuba etzala
adieraztia nuke nai.

Tunitz, Otxoki, Garbera-goya,
Marrus, Paris eta Londres,
Illarri Audaritz , Kataliñene
Pelegrñenen nola ez;
Gaztelueneen Sarduak ere
Txirritakin zedukan babes,
euneko euna betetzen zuten
sagardo aukera errez.

Baserriyetan izaten zuten
bakoitzak bere tolare,
kanpoaldian ondo zaituta
sagasti eder bat ere,
baserritarrak sagardogintzan
sayatzen ziran dotore,
gure kaltian au egiteari
utzi ziyoten alaere.

Egilea: Kaxero

Sagardoteitan zegon giruaz
zerbait esango det ara,
Barrunbe ilun eze oyetan
bazan bertso ta algara;
derepentian naspilla ortan
bertsolariyak atara,
eta alkarren bertso borroka
xuxen-xuxenian para.

Gaztelu , Arrux, Amueder eta
auxen da koleziyua,
sasoi ortako bertsolari obek
bertsoz zuten zeziyua;
sagarduakin indarturikan
galdu gabe juiziyua,
orra! Xenpelark Altzako Otxokin
jarri zun dibertsiyua.

Sagarduaren indarraier esker
zerbait sayuaren emaitz,
beren burua guztiz azkartu
etzunez iñolako gaitz;
sagardotegitan luzitzen ziran
bapatekoa baitzen giltz,
Txirrita Altzan etzan biziko
sagardorikan ezpalitz.

Garbera Jauntxoan eskutan

*Eroski eta garbera,
biyak dira gauz berbera,
parke barruan mamu bat degu
gutxi gora behera;
Jauntxo oyen arabera,
salmentak ez dijuaz bera,
baña baserri eta zelaiak
juan ziren gainbera.*

*Garbera etorri zela,
Altzari oferta itzela,
baserritarrei bixera eman
ta kendu txapela;
inposizio krudela,
denak jakin dezatela,
kanpotik aberatsa da baina
barrutik ustela.*

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi
Egilea: Kaxero eta Unai Elizasu.

Altzan Pelota

Koka aipatu egin dudanez
orain beharko det utzi,
gure Altzako frontoi hontara
jende ona da iritsi,
nahiz eta gora igo diraden
soilik zutenak merezi,
eskuaz eta palakin Altza
goi mailari dio eutsi,
adibide onena Atorra,
Carrete eta Gastesi.

Mila bereratziehun ta hamar
altxa zen lehen frontoi zaharra,
geroztik Altzako frontoi hontan
pelotak hartu indarra,
larogeita hiruan bota zen ta
ez zuen sortu negarra,
pelota-leku berri bat baitzen
bertan eraiki beharra,
altzatar zalea asetzeko
zegon opari bakarra.

Altzatarrok frontoian igaro
une atseginak pranko,
bertako jende oro frontoia
asko maite duelako,
altzatarron lana izan degu
pelotaren onerako,
pelota zale altzatarrari
eskerrak eman beharko,
frontoi hotzari berotasuna
eman diozutelako.

Doinua: 10eko Nagusia
Egilea: Unai Elizasu

Juan Mari Irigoien

Udazkenaren balkoitik
urte guztia pasatu,
Poliedroaren hostoak
erortzean begiratu,
oilarrak bere promesa
goizetik digu kantatu,
hitz jario emankorra
nahiz eta Est Consumatu,
higienertza Metak
eta kometak osatu,
gero liburu batean
kalamidadeak batu,
Babilonian bizi nahi ta
Altzarekin konformatu,
nahiz eta batzutan Altza
Arraldegatik aldatu.

Doinua: Habanera
Egileak: Gazteluene

Juantxo Koka

*Juantxo Koka pilotan guretzat errege,
galtzerakoan ere,
Altzatarrok zurekin oso harro gaude,
Segundako finalan txapelaren jabe,
izugarrizko tanto haiek ahaztu gabe,
zure tanto onena Euskararen alde.*

Kataliñeneko Amona

Anastaxi buruan
izaten zaitut maiz,
Kataliñenen morroi
egon nintzan garaiz;
zure sagar-erriak
jaten nitun alaiz,
onduan galdezka zu
"gustora ari aiz",
zure jatortasunaz
akordatuko naiz.

Egilea: Kaxero

Bixente Barandiaran

*Bertso ugari entzuten dira
gaur egun ere Garberan,
nahiz eta hiper merkatutikan
bertso asko ixildu dan,
hemen gaudenok ere nahi dugu
zure iturritik edan,
ito aurretik eskerrak zuri
Bixente Barandiaran.*

Bixente Irurogetagoiena

Herriari lagunduz dena muxu truke,
lanean gogor jardun eriotzerarte,
zuk jendea maitatu, jendeak zu maite,
hil egin zera baina oraindikan tente,
zuk jendea maitatu, jendeak zu maite,
gure Altzako plazan bizirik Bixente.

Altzatar Bertsozalia

Jose Makazaga zan
altzatar prestua,
bertsua bere inprentan
zan babestua;
bertsolaritzan zuben
artu-eman estua,
sona handiko rebista
arrek gorpuztua,
bere gain gastua,
etzakan aztua,
erriko gustua,
bertsotan ustua,
bertsozalia fiña
eta justua.

Aztarnak

Gure inguruko altxor zaharrei
bertso honetan neurria,
Santiago biden Pelegriñene
izena dun baserria,
“aitzetako txabala” deritzan
altzako trikuarria,
gorago jentilarria,
arbasoek han jarria;
baina guretzat altxor onenak
egoera du larria,
galtzear dago arbaso zaharrek
amestutako herria.

Pintzeladak

Altza
ezagutzeko
ipar eta hego,
baserririk baserri
baserririk balego.

Santa Isabel degu
polita eguna,
urtean behin gerade
herri Euskalduna.

Lehen erreka zuloak
urakin betia,
orain uraren orde
degu bariantia.

Autobus zenbakia
nor koño jarri du,
numero asko egon arren
guretzat hamairu.

Euskalerrin gaudela
obe dugu utzi,
hau Sahara ematen du
"Camello" ta guzti.

Donostiarrak garela
digute esaten,
baina Altza ezta agertzen
Donostiko CATen.

Txapel okerrak galde
- ei, gazte nora oa?
Londresetik nator ta
Parisera noa.

Guk ez dugu Kursala
ezta ere Kontxa,
Altzakoa naiz ta ez dut
esateko lotsa.

Galindo gatito lindo
dio abestia,
ta Intxaurrendori fama
hori da tristia.

Enborra flojo dago
ta sustraia tinko,
Gu bizi geran arten
Altza ez da hilko.

Natura usaitzeko
badegu aukera,
zaborra San Marcosen
doa "berziklatzera".

San Martzial egunean
3 bandera gora,
gero Donostiarrena
galdu egingo da.

Baserriak menditik
egin dute hanka,
gaurko baserriek berriz
20 pisu dazka.

Altzatik Donostira
gira eta bira,
autobus hauek gehien
erretzen ohi dira.

Lehen gereziak jaten tripa zela utsa,
gaur tripa betetzeko
hartu txupatxusa.

Hau Sahara degula
esan degunian,
Bueno, Barato, Bonito,
Garbera aldian.

Ekainak hogeitahamar
altzatarron festa,
Irunen modun baina
Alarderik ezta.

Doinua: Klopa txikia
Egilea: Unai Elizasu

Jende askorentzako
hau ez du merezi,
Donostiarrak dira
nahiz ta Altzan bizi.

Haltza zuhaitz bat da ta
Altza hortik dator,
beraz Alza izena ez
dezala esan inor.

Lehenbailehen Altzara !

Imanol, Koldo eta Fernando
zuen alde ari gara,
hiru laurdenak beteta eta
etxeratzekoa ordua da,
aspaldian sartu zintuzteten
giltzapean kartzelara,
baina halare Altzako herriak
ez du sentitzen ikara,
lehenbailehen itzuli Altzara.

Dispertzioa ta lege arrotzak
ez dira zigor arinak,
presoak eta askatasuna;
euskal herritarron grinak,
ibilbidean iadanik dira
hamaika saio eginak,
baina halare fuerte gaude ta
ez gaitu hartu ezinak,
merezi du ahaleginak.

Zuen borrokak ematen digu
guri guztioi indarra,
beharrezkoak zaretelako
eraikitzeko biharra,
azken boladan Euskal Herrian
dabilkigu haize zakarra,
baina haizeari aurre eginaz
mantentzen degu irrifarra,
zuek, helburu bakarra.

Doinua: Lazkao Txiki (ETB)

Egilea: Jon Sanchez

Despedida

Errepaso bat polita,
bertsoz adierazita,
pentsatutzen jarrita,
egin degu kritika,
gaizki esanak barkatu,
ondo esanak gogoratu.

Eskerrak entzuleari,
egoteagatik adi,
zuentzako kantari,
bota bertso ugari,
saioak ikutu goia,
bukatu da paranoia.

Hau izan da gure lana,
egin behar genuana,
bertsotan bota dana,
ez degu lortu fama,
eskerrik asko lehenbizi,
agur denoi ta ondo bizi.